



26 de junio de 2011

Lagun hori:

“Las cosas importantes se hacen con corazón”, y Caritas es muy importante para nosotras, las personas que formamos la comunidad cristiana.

La fiesta del Corpus es nuestra fiesta, el día de la Caridad, que este año celebraremos el próximo sábado, 25 de junio, en Zierbena. Porque Caritas nace del cuerpo de Cristo, fuente y exigencia del amor de Dios encarnado que se parte y reparte para alimento y sustento de nuestras ansias de fraternidad y justicia.

Si una iglesia ardiera, lo primero que correríamos a salvar los cristianos es el Cuerpo de Cristo. Ejemplo claro del aprecio con el que acogemos este don.

Fraternidad y compromiso son los valores, humanos y cristianos, en los que hoy centramos nuestra atención, cerrando el ciclo de campañas “una sociedad con valores es una sociedad con futuro”.

Animo a las personas que pertenecéis a los diversos equipos de Caritas a que celebréis y participéis activamente en la Eucaristía de este día. Que deis a conocer quienes sois y lo que hacéis; que deis a conocer lo que hace la comunidad cristiana en su **compromiso fraternal** con las personas que peor lo pasan, pues eso es Caritas, eso es lo que sois.

Este año -además- celebramos el ‘Año Europeo del Voluntariado’; buena ocasión para renovar vuestros ánimos en forma de felicitación por la gran labor que hacéis y lo bien que la hacéis.

Os invito a que transmitáis esta felicitación a todas las personas voluntarias de vuestra comunidad parroquial y a que aprovechéis la celebración del Corpus, u otro momento en este año, para expresar un reconocimiento a esas personas que han dado tantos momentos durante tanto tiempo, de manera callada y sencilla, para acompañar a tantas personas atrapadas en situaciones de exclusión y pobreza.

Es el Señor Jesús el que nos acompaña y guía en este camino y le reconocemos, como los discípulos de Emaús, en el partir el pan.

Nos unimos a Él en este abrazo fraternal.

Mikel Ruiz
Director



2011ko ekainak 26

Lagun hori:

“Gauza garrantzitsuak bihotz-bihotzetik egiten dira”, eta Caritas oso garrantzitsua da guretzat, kristau elkarteak osatzen dugun guztiontzat.

Gorpuzti-eguna gure jaia da, Karitatearen eguna, eta aurten ekainaren 25ean ospatuko dugu, Zierbenan. Izan ere, Caritas Kristoren gorpuztetik sortu da, Jainkoaren maitasun haragi bihurtuaren iturri eta eskakizuna, gure anaitasun eta justizia gosea asetzeko partekatzen dena.

Eliza bat sutan egongo balitz, kristauok Kristoren Gorputza salbatuko genuke lehen-lehenik. Dohain horri diogun estimazioaren seinale.

Anaitasuna eta konpromisoa dira gaur arreta jarriko diegun giza eta kristau balioak, kanpaina ziklo honi amaiera emateko: “balioak dituen gizarteak etorkizuna izango du”.

Caritaseko taldeak osatzen dituzuen kide guztiok animatu nahi zaituztet, egun horretako Eukaristian parte aktiboa izan dezazuen. Nor zaretan eta zertan ari zaretan ezagutarazteko; kristauok jende behartsuenarekin dugun **anaitasun-konpromisoa** nola gauzatzen dugun jakinarazteko; horixe baita Caritas, horixe zarete zuek.

Aurten -gainera-, “Boluntariotzaren Europako Urtea” ospatzen dugu; aitzakia ona da indarberritzeko, eta zorionak eman nahi dizkizuet egiten ari zaretan lanagatik, eta hain ondo egiteagatik.

Mesedez, helarazi nire mezu hau zuen parrokiako boluntario guztiei. Bide batez, aprobetxatu Gorpuzti-eguneko ospakizuna edo urteko beste edozein une, lan isil eta etengabearen aritu diren pertsona horiei egin duten ahalegina aitortzeko, baztertuta eta pobrezia egoeran dauden pertsonekin lan handia egiten dutelako.

Jesus Jauna gurekin dago eta bide honetan laguntzen digu, eta hala aitortzen diogu, Emausen dizipuluek bezala, ogia partekatzeko unean.

Egin dezagun Harekin bat, anai arteko besarkada honekin.

Mikel Ruiz
Zuzendaria